

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Behin betiko onspena ematea ingurumenean eragina duten jardueri buruzko zerbitzu teknikoak edo administratiboak emateagatiko tasak arautzen dituen zerga ordenantzari

2021eko urriaren 25ean egindako ezohiko bilkuran, ingurumenean eragina duten jardueri buruzko zerbitzu tekniko edo administratiboak emateagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala onartzea erabaki zen, eta honela geratu zen ordenantzaren testua:

INGURUMENEAN ERAGINA DUTEN JARDUEREN GAINEKO ZERBITZU TEKNIKOAK ETA/EDO ADMINISTRATIBOAK EMATEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. OINARRIA ETA IZAERA

1. artikulua

Legutioko Udalak, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 20. eta 25. artikuluetan, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 Epaian eta uztailaren 13ko 25/1998 Legean xedatutakoaren arabera, Ingurumenean eragina duten jardueren gaineko zerbitzu teknikoak eta/edo administratiboak emateagatiko tasak ezartzen ditu. Tasa horiek ordenantza fiskal honen bidez arautuko dira. Nolanahi ere, ordenantza horretan ezarri ez denerako, tributuen eta bestelako sarrera publikoen bilketaren, ikuskapenaren eta kudeaketaren arloan aplikatzekoa den araudian xedatutakoa aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

2. artikulua

Tasa honen zergapeko egitatea honako hauetarako behar diren udal zerbitzu tekniko eta/edo administratiboak ematea da:

1. Proiektu, jarduera edo instalazio baten hirigintza bateragarritasunari buruzko txostena egitea, ingurumenean eta/edo pertsonen osasunean eragina duen jarduera batek berariaz eskatuta, betiere jarduera baten legezatzearen parte ez bada.

2. Lurzoruaren kalitatearen arloko txostenak egitea.

3. Txostenak egitea, aplikatzekoa den araubidearen arabera eska daitezkeen baldintza administratiboetara eta teknikoetara buruzko aurretiazko informazio kontsulten kudeaketari erantzuteko, gaikuntza titulua izapidetzeko eskaera egin aurretik ingurumenean eta/edo pertsonen osasunean eragina duen jarduera baten ondorioz.

4. Ingurumenean eta/edo pertsonen osasunean eragina duten jarduerak ezarri, aldatu edo zabaltzeari dagokion egiaztapen dokumentala eta/edo presentziala, baldin eta aplikatzekoa den araudiaren arabera alde zuzeneko jakinarazpen araubidearen mende badaude.

5. Ingurumenean eta/edo pertsonen osasunean eragina duten jarduerak ezartzeko, aldatzeko edo zabaltzeko jarduera lizentzia ematea, aplikatu beharreko araudiaren arabera, eta/edo aurretiazko komunikazioaren araubideari lotuta ez dauden jarduerengatik formalizatu beharreko aurretiazko komunikazioa egiaztatzea.

6. Ingurumenean eta/edo pertsonen osasunean eragina duten jarduerak agiri bidez eta/edo aurrez aurre egiaztatzea, titulartasuna aldatzeagatik, betiere aplikatu beharreko araudiaren arabera.

3. artikulua

Ordinarazpen horren ondorioetarako, honako hau izango da jarduerak ezarri, aldatu eta handitzea:

- Hasierako instalazioak, bai eta merkataritza, industria edo zerbitzuetarako erabiltzen diren makinak edo beste elementuak jartze hutsa ere, nahiz eta berehala ez abiarazi, funtzionatu edo ireki.
- Lokalez aldatzea.
- Jardueran aritzeko baldintzetan izandako aldaketak, baldin eta lehendik dagoen gaikuntza titulua berrikustea badakarte, eta/edo ohiko funtzionamendurako eska daitezkeen lege betekizunak betetzen direla egiaztatzea, izena, titularra edo establezimendua aldatzen ez badira ere.

III. SUBJEKTU PASIBOAK**4. artikulua**

1. Tasen subjektu pasiboak, zergadun gisa, Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 36. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak dira, baldin eta udal zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte edo zerbitzu edo jarduera horien onuradunak badira edo horien eraginpean badaude.

2. Subjektu pasiboaren zerga betebeharrengatik era solidarioan erantzungo dute Arabako zergen foru arau orokorraren 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak.

3. Arabako zergen foru arau orokorrak 43. artikuluan aipatutako pertsona edo entitateak izango dira erantzule subsidiarioak.

IV. ZERGA OINARRIA ETA ZERGA KUOTA**5. artikulua**

Tributu kuota honako epigrafe hauen arabera kalkulatu da, eta ordenantza honetako V. tituluari jasotako salbuespenak eta hobariak aplikatu beharko zaizkie.

ZERGA OINARRIA		KUOTA (€)
1. epigrafea. Ingurumenean eta/edo pertsonen osasunean eragina duen jarduera batek berariaz eskatutako proiektu, jarduera edo instalazio baten hirigintza bateragarritasunari buruzko txostena ematea.		50,00
2. epigrafea. Lurzoruaren kalitatea.	Honako hauei buruzko udal txostenak egitea: — Toki batean egin diren jardueren identitatea eta potentzial kutsatzaila motari buruzkoa, Udalean dagoen informazioan oinarrituta. — Lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioaren prozeduratik salbuesteko eskaera izapidetzea, aurretik kokatutako jardueren identitatea eta kutsatzeko potentzial mota baloratu gabe (sustatzailak horri buruzko txostena baitu, erakunde egiaztatutak sinatua).	175,00
3. epigrafea. Txostenak egitea, aplikatzekoa den araubidearen arabera eska daitezkeen baldintza administratiboei eta teknikoei buruzko aurreiazko informazio kontsulten kudeaketari lotuta, gaikuntza titulua izapidetzeko eskaera egin aurretik ingurumenean eta/edo pertsonen osasunean eragina duen jarduera baten ondorioz.		50,00
4. epigrafea. Jardueraren aurreiazko jakinarazpen araubideari lotutako jarduerak.	≤ 50 m ²	150€
	> 50 eta ≤ 200 m ²	250€
	> 200 eta ≤ 500 m ²	350€
	> 500 eta ≤ 1.000 m ²	475€
	> 1.000 eta ≤ 2.000 m ²	650€
	> 2.000 eta ≤ 5.000 m ²	975€
	5.000 m ² -tik gora	1.325€

ZERGA OINARRIA		KUOTA (€)
5. epigrafea. Jardueraren lizentziaren araubideari lotutako jarduerak.	≤ 50 m ²	250€
	> 50 eta ≤ 200 m ²	750€
	> 200 eta ≤ 500 m ²	1.000€
	> 500 eta ≤ 1.000 m ²	1.500€
	> 1.000 eta ≤ 2.000 m ²	2.000€
	> 2.000 eta ≤ 5.000 m ²	2.750€
	5.000 m ² -tik gora	3.925€
6. epigrafea. Ingurumenean eta/edo pertsonen osasunean eragina duten jarduerak egiaztatzea, titulartasun aldaketak eraginda.		75,00 €

* Aplikatu beharreko zenbatekoa aztertzeko, katastroan islatutako azalera okupatua hartuko da kontuan.

6. artikulua

1. Zerga oinarria lokalaren azalera osatzen duenean, halakotzat hartuko da katastroko elementuaren krokisaren azalera grafikoa. Nolanahi ere, azalera zenbatuko da, bertan eraikinik dagoen edo ez kontuan hartu gabe.

2. Jarduerak zabaltzen edo aldatzen diren kasuetan, kuota aplikatuko zaio handitzeak edo aldaketak eragindako eremuaren azalera.

3. Jarduera batek gaikuntza titulu bat baino gehiago lortu behar badu, zenbateko handieneko epigrafearen arabera ordainduko da zerga.

V. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua

Honako hauek kuota ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

- Gaikuntza titulua izapidetzeari dagokionez:
- Enpresen udal hazitegietan kokatzen diren jarduerak.
- Gaikuntza titulua ukatzea hirigintza bateraezintasuneko arrazoiengatik. Kasu horretan, ez da ordainduko gaikuntza titulua izapidetzeari dagokion kuota, baizik eta hirigintza bateragarritasunari buruzko txostena emateari dagokiona.

8. artikulua

Hobari hauek aurreikusten dira:

HOBARIA JASO DEZAKEEN EGITATEA	HOBARIA
Jarduerak lekuz aldatzea, hirigintza araudiaren arabera instalatu behar ez diren eremuetatik egokitzen jotzen diren eremuetara, betiere jarduera bera egiten bada.	ehuneko 50
Eskatzaileak uko egitea edo atzera egitea dagokion gaikuntza titulua izan aurretik, betiere jarduera hasi ez bada.	ehuneko 50
Estrategikotzat jotzen diren edo osoko bilkuraren akordio bidez berrakibatutako beharreko eremuetan ematen diren baimenak.	ehuneko 50
Korporazioak udalerrientzat interesgarritzat jotzen dituen tokiko enplegu ekimen edo proiektuak, garatu beharreko jardueragatik, egin beharreko inbertsioagatik edo sortu beharreko enplegu aurreikuspenagatik.	ehuneko 50
10 langile baino gutxiagoko kooperatibek egindako jarduerak.	ehuneko 50
Ekonomi jardueren gaineko zerga ordaindu behar duten jarduerak ezartzea, horien titularra Legution zerga egoitza duen pertsona fisiko edo juridikoa bada eta eragiketa bolumena milioi bat eurotik beherakoa bada.	ehuneko 30
Irabazi asmorik gabeko erakundeak, irabazi asmorik gabeko erakundeen eta zerga pizgarrien zerga araubideari buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauan mezenasgorako aurreikusitako baldintzetan, baldin eta gaitzen duen tituluak aipatzen duen lokala edo establezimendua beren xede edo helburu espezifiko batzuetarako ustiapen ekonomikorako erabiltzen badute.	ehuneko 90
Lehen sektoreari lotutako jarduerak:	ehuneko 90
Zerbitzuen sektoreari lotutako jarduerak	ehuneko 75

9. artikulua

1. Onura fiskal horiek aplikatzeko eskaera interesdunak egingo du, berariaz, dagokion eskabidea egiten duen instantzia berean.

2. Eskaerarekin batera, jaso nahi duen hobariaren aplikazioa justifikatzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3. Paragrafo honetan araututako hobariak bateraezinak izango dira elkarren artean. Subjektu pasibo batek hobari bat baino gehiago jasotzeko eskubidea badu, hobari bakar bat aplikatzea aukeratu beharko du. Halakorik ezean, udal administrazioak hobaririk onuragarriena aplikatuko dio subjektu pasiboari.

VI. SORTZAPENA

10. artikulua

1. Zergapeko egitate diren udal jarduerak egiten edo zerbitzua ematen hasten direnean sortzen da tasa ordaintzeko betebeharra. Ondorio horietarako, zerbitzua edo jarduera hasitzat joko da:

– Txostenak, baimenak, lizentziak, kontsultak eta abar eskatuz gero: dagokion eskabidea aurkezten den egunean.

– Aldez aurreko jakinarazpenak aurkeztuz gero: udal zerbitzuek agiri bidez edo aurrez aurre egiaztatzeko lanak hasten direnean.

2. Kargatutako jarduera bat dagokion gaikuntza titulurik izan gabe gauzatzen hasi denean, tasa sortuko da, baldin eta kasuan kasuko jarduera ordenamendu juridikoaren arabera baimendu daitekeen ala ez zehazteko udal zerbitzua edo jarduera hasten bada.

VII. KUDEAKETA, BALDINTZAK ETA ORDAINTEZKO MODUA

11. artikulua

Sortzen den tasa Administrazioak likidatuko du, eta subjektu pasiboak ordaintzeko jakinaraziko da.

12. artikulua

Ordenantza honetan xedatzen ez denari dagokionez, kudeaketaren eta diru bilketaren arloan aplikatu beharreko araudi orokorra aplikatuko da.

VIII. IKUSKAPENAK ETA ZEHAPENAK

13. artikulua

Zerga arloko arau hausteen sailkapenari eta kalifikazioari dagokienez, bai eta arau hauste horiengatik kasu bakoitzean dagozkion zehapenak zehazteari dagokionez ere, Arabako Zergen Foru Arau Orokorra aplikatuko da, bai eta tributuak eta tokiko zuzenbide publikoko beste sarrera batzuk kudeatzeko, likidatzeko, biltzeko edo ikuskatzeko aplikatu beharreko beste arau batzuk ere.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Indarrean dagoen legeriaren eta beste garapen arau batzuen alderdiak erreproduzitzen dituzten ordenantza fiskal honetako aginduak automatikoki aldatzen edo/eta ordeztzen direla ulertuko da, horiek eragiten dituzten lege eta erregelamendu manuak aldatzen diren uean.

AZKEN XEDAPENA

Zerga ordenantza hau behin betiko onesprenaren erabakia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean eta haren indarraldiak aldatu edo berariaz indargabetu arte iraungo du.

Legutio, 2021eko abenduaren 21a

Alkate-lehendakaria
JON ZUAZO ZUBERO